

Hirigintza proiektua Martutenen

Udalak 151 etxebizitza, lorategidun plaza eta gizarte zentro bat egiteko asmoa du Martutenen. Ingurune berria Etxarriene aldean egongo da, Donostia eta Hernani arteko errepide ondoan, eta 25.000 metro karratu izango ditu. Odon Elorza alkateak jakinarazi duenez, martutenearek topagune falta dute eta beraz, proiektuak behar honi aurre egin nahi dio.

Etxarrieneko egitasmoak Udala Gobernuaren babesa lortu zuen joan den asteartean, hilak 6, egindako bileran. Proiektuaren arabera, eraikitzeoko diren

151 etxebizitzetatik 60 babes ofizialekoak izango dira: 40 alokairuan eskainiko dira eta besteak, berriz, saldu. Gainerako etxebizitzak, 91, merkatu librean salgai jarriko dira. Etxeok hiru solairu eta sotoa izango dituzte. Etxebizitez gain, ibilgailuak aparkatzeko 163 toki egingo dira, haietako 50 babes ofizialeko etxebizitzentzat.

Esan bezala, inguru honetan Udalak gizarte zentro bat jarri nahi du. Alokairuan eskainiko diren babes ofizialeko etxebizitzeez azpian dendak ipintzea aurreikusita da, baina hala ere, aldaketak egin daitezke

eta hortaz, Udalaren asmoa gizarte zentroa bertan jartzea da. Azpiegitura berriak Martutenekeo egungo gaztelekua ordezkatu luke.

Elorzak adierazi duenez, proiektuari auzotarrak elkartzeko guneak gehituko zaizkio: eraikinen arteko plaza, lorategi eta guzti, batetik, eta Urumea ondoko pasealekua, bestetik.

Alkatearen esanetan, hirigintza proiektu berria egiteko lanak datoren udaberrian hasi eta gutxigorabehera bi urte t'erdi barru bukatuko dira.



Ura garestiago

Añarbeko Mankomunitateak uraren prezioa %14 garestitu du, eta beraz, datorren urtean metro kubikoak bost pezeta gehiago balioko du (43). Prezio igoera dela eta, Udalak 960 milioi pe-zeta ordaindu beharko dizkio mankomunitateari, hau da, aurten baino ehun milioi gehiago. Herritarrek, dena den, ez dute igoera hau nabarituko, izan ere, uraren gaineko zergak Kontsumo Prezioen Indizearen neurri berean gora egingo du, %3,9 alegia. Gainontzekoa Udalak ordaindu beharko du.

Mankomunitatearen arabera, prezioa garestitzearen arrazoia etekinei eutsi beharra da, aurreikusitako inbertsioak egin ahal izateko, hain zuzen. Azken hilabeteetan konponketa lanak egin dira ur horniketa sisteman, ihesak saihesteko, eta haiei esker, Donostiak, oro har, %11 ur gutxiago kontsumitu du. Ildo honetatik, datorren urtean ur kontsumoa 22 milioi metro kubikora jaitsi liteke (azken hiru urteetan 24,6 milioi izan da). Ur gutxiago kontsumitzen ari denez, Añarbeko Mankomunitateak dio beharrezkoa dela pre-

zioa igotzea, etekinei eusteko eta egin beharreko hobekuntzak egin ahal izateko.

Añarbeko Mankomunitatearen esanetan, ingurugiro aldetik, ur ihesak murriztu izana *"oso albiste ona da, hiriaren baliabideak gero eta hobeto erabiltzen ari direla seinale delako"*. Bestalde, konponketei esker, urtegia maizago egongo da beteta eta ondorioz, *"ur kontsumoa bermatuta egongo da, baita lehorte handietan ere"*.